

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

| | | | |
|--|---|---|---------|
| ikastetxea: <i>centro:</i> | ABADIÑOKO INSTITUTUA | kodea: <i>código:</i> | 015071 |
| etapa: <i>etapa:</i> | DBH | zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i> | 1.maila |
| arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i> | MUSIKA | | |
| osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i> | Arterako konpetentzia | | |
| diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i> | Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia | | |
| irakasleak: <i>profesorado:</i> | Mila Milikua – Raquel Marcos | ikasturtea: <i>curso:</i> | 2022-23 |

Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

| helburuak <i>objetivos</i> | ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i> |
|--|--|
| <p>1. Musika baliabideen oinarriak zeintzuk diren jakitea eta erabiltzea, autonomiaz, bai taldeka bai bakarkako ekintzetan musika interpretatzeko, sortzeko eta proposamenak plazaratzeko.</p> | <p>1)Norberaren eta besteen ekarpenak musikan garrantzitsuak direla kontuan izanik, interpretazio-jarduerak modu egokian egitea:</p> <p>.Ea proposatutako obrak adierazgarritasunez interpretatzen dituen; ea afinazio eta erritmo egokiaz interpretatzen dituen.</p> <p>. Ea proposatutako obraren interpretazioan jarrera egokia erakusten duen.</p> <p>.Ea sol ikurrean idatzirik dauden doinuak zaletasunez interpretatzen dituen.</p> <p>.Ea aintzat hartzen duen talde-lanaren garrantzia; ea errespeturik adierazten duen taldekideen lanarekiko eta taldeko interpretazioan.</p> |

| | |
|--|---|
| <p>2.- Musikan erabiltzen diren musika tresnak eta teknika musikal ezberdinak aztertzea eta ezagutzea, zenbait estilo, genero, joera eta kulturatako obretan, jakintzako kultura erreferentziako eta plazer pertsonalerako iturritzat hartzeko .</p> <p>3.- Euskal herriko eta beste herri batzuetako kultura ondarea arte eta musika adierazpenen berri izatea eta horiek balioesteak, adierazpen forma guztien kontserbazioaren eta berrikuntzaren alde egiteko, aberastasun iturritzat hartzeko.</p> <p>4.- Ideiak, sentimenduak, emozioak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko musikak zer aukera ematen dituen ulertzea, materiarekiko eta irakasleak proposaturiko aktibitateekiko jarrera egokia erakutsiz, partaidetza ezberdinen errespetuarekin eta behar den materiala ekarriz, klasean burutzen diren ekintzetan parte harturik eta jardunaldi ezberdinetan errespetuz jokaturik, artearen eta kulturaren ezagutza, erabilera eta gozamena sustatze aldera.</p> | <p>2)Eskuraturiko jakintza eta baliabideak erabiltzea musika-proposamenak egiteko:</p> <p>.Ea autonomiaz eta behar den bezala erabiltzen duen musika-kodea.</p> <p>.Ea behar den bezala prozesatzen dituen musika ezagutzak musika-produktu bat egitean eta sortze horretan irudimenik erakusten duen.</p> <p>3) Musikan erabiltzen diren zenbait teknika eta baliabide identifikatzea eta zenbait kulturatestuingururekin lotzea:</p> <p>.Ea arretaz eta errespetuz entzuten duen ikasten eta aztertzen ari den artelana, eta era berean artelanez zer informazio adierazten duten.</p> <p>.Ea identifikatzen eta deskribatzen dituen musika-adierazpen jakin batzuen berezko zenbait teknika.</p> <p>4)Zenbait kultura-testuingururekin lotzea eta zenbait jatorritako musika-proposamenak identifikatzea:</p> <p>.Ea kokatzen duen denboran eta espazioan entzun edo interpretatu behar den musika-obra.</p> <p>.Ea aztertzen eta hitzekin deskribatzen duen proposatutako entzunaldia.</p> <p>.Ea ezagutzen dituen aztertutako musika tresnen ezaugarri ezberdinak.</p> <p>. Ea autonomiaz erabiltzen dituen ikusentzunezko bitartekoak informazioa biltzean,</p> |
|--|---|

| | |
|--|--|
| | <p>eta ea erabiltzen dituen teknologiaren aukerak musika-adierazpen ezberdinak sortzeko.</p> <p>.Ea interesik adierazten duen eta era beran adi dagoen, norberaren eta beste kultura batzuen kultura-ondarearen inguruan gogoeta egiten denean.</p> <p>4) Ikasgelan eginiko musika jarduera ezberdinak baloratzea:</p> <p>.Ea azalpenak arretaz entzuten dituen. .Ea entzuten dituen besteen gogoetak, eta bereak alderatzen dituen.</p> <p>. Ea landutako edota proposatutako gaiaren alderdi jakin batzuk, bai ahoz bai idatziz, autonomiaz eta modu argian adierazten dituen.</p> |
|--|--|

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

□ **1. arazo egoera / Situación problema 1**

KANTUZ KONTATZEN

“Kantuz kontatzen”: kanta desberdinen istorioak ezagutu. Honela landuko dira:

- . zenbait euskal kantu tradizionalen letra aztertu (esanahia, zer gertatu zen, noiz eta nola).
- . ondoren, doinuaren estruktura aztertu; egilearen datuak ere jasoko dira.
- . eta azkenik kantua interpretatu.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1.Ebaluazioan

. Lengoia musikalaren zenbait kontzeptu basiko: eskala naturalak, irudi erritmikoak: borobila, zuria, beltza, kortxea, kortxeardia, puntua), 2/4, 3/4, 4/4 konpasa, ñabardurak, kaligrafia musikala. Teoria landu, kontzeptu hauen praktika baita ere.

Tempoa. Errepikapen ikurrak. Luzapen ikurrak.

. Soinuaren jatorria eta ezaugarriak. Kutsadura akustikoa. Zer behar du musikak zarataz ezberdintzeko? Parámetro ezberdinak aztertu.

. Ahotsa eta kantua. Ahots sistema eta ahotsen sailkapena. Teorian baita praktikan bereiztu, entzunaldien bidez. Operarako oinarrizko sarrera.

. Euskal kantak abestu. Partitura erraza eta basikoak irakurtzen ikasi. Pianoaren laguntzarekin.

. Pianoarekin edota ahotsarekin kanten interpretazioa. Pianora lehen hurbilketa.

. 2/4, ¾ eta 4/4ko konpasean idatzirik dauden melodiak.

. Entzunaldietan eta interpretazioetan aditasuna eta errespetua. Kontzentrazioa eta entzumen arretatsua landu eta garatu.

. Klasearekiko eta irakasleak proposaturiko aktibitateekiko jarrera egokia. Klasean arretaz entzun, errespetua irakasleari eta klaseko kideei sustatu.

. Isiltasunaren garrantzia baloratu eta landu.

2. Ebaluazioan

. Lengoia musikalaren zenbait kontzeptu: ostinato erritmikoa, lerro gehigarriak. Talde instrumentala.

. Musika tresnen familia. Orkestra.

. Musika taldeak.

. Musika herrikoia.

. Euskal kantak. Taldeak eta abeslariak.

. Historian zehar izan ditugun konpositore edo musika taldeen biografia.

. Pianoarekin edota ahotsarekin kanten interpretazioa.

- . 2/4, 3/4 eta 4/4ko konpasean idatzirik dauden melodiak.
- . Entzunaldietan eta interpretazioetan aditasuna eta errespetua.
- . Klasearekiko eta irakasleak proposaturiko aktibitateekiko jarrera egokia. Isiltasunaren garrantzia landu.

3. Ebaluazioan

- . Lengoaia musikalaren zenbait kontzeptu: 6/8koa. Talde instrumentala.
- . Munduaren soinua. Beste herri batzuetako kantak eta musika tresnak. Eszenarako musika. Musika-ikuskizunak.
- . Kantuz kontatzen (arazo egoera).
- . Euskal kantak. Taldeak eta abeslariak.
- . Konpositoreen biografiak.
- . Pianoarekin edota ahotsarekin kanten interpretazioa.
- . 2/4, 3/4, 4/4 eta 6/8ko konpasean idatzirik dauden melodiak.
- . Entzunaldietan eta interpretazioetan aditasuna eta errespetua.
- . Klasearekiko eta irakasleak proposaturiko aktibitateekiko jarrera egokia.
- . Isiltasunaren garrantzia landu.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Musika klaseak, bakarka eta taldeko parte hartze aktibo baten bidez burutuko dira, beti ere, lengoaia musikala oinarritzat harturik.

Prozedurak eta jarrerazko edukiak funtsezkoak dira; horregatik, ikaslearen parte hartzea oinarritzakoa da. Horretaz gain kontzeptuak ere landuko dira. Espresio bokalaren eta instrumentalaren bitartez, ikaslearengan, gaitasun higiarazleak eta sentsibilitate artistiko musikalak garatzea nahi da.

Klasean egingo diren ariketak honako hauek izango dira:

- entzunaldiak eta horiei buruzko ondorengo debatea
- Taldean ahotsarekin kantak interpretatu
- Gorputz perkusioaren bidez erritmoaren lanketa
- Pianoan partitura erraz eta basikoak interpretatu.
- ulermen ariketak
- azalpenak
- bideoak (kontzertuak, bideo didaktikoak)
- testuen irakurketak: konpositore eta talde musikalen irakurketa ezberdinak proposatuko dira.
- aurkezpenak ahoz (Normalkuntza proiektua)

Lana planteatzerakoan, erabiliko ditugun partitura eta musikaren aukeraketa egokia, funtsezkoa izango da; ezagunak diren obrak abiapuntutzat hartuz, ikasleak ezagutzen ez dituen musikak aztertzen eta barneratzen saiatuko gara. Entzunaldi eta biografia ezberdinak landuko dira, Hezkidetza proiektuarekin bat eginez.

BALIABIDEAK:

Koadernoa. Partiturak. Fitxak. Diskak. Bideoak. DVD-ak. Instrumentuak. Ordenagailua. Pianoa. Arbela. Pantaila-proiektorea.

| | |
|--|---|
| <p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoa, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p> | <p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p> |
|--|---|

Ebaluaketan atal hauek baloratuko dira:

A) Eguneroko lana eta jarrera:

-Entzunaldietan arreta. (hezkidetza).
-Azalpenetan interesa eta aditasuna.
Proposatzen diren ariketa / jardueretan interesa eta errespetua;(hezkidetza).
-lana aurrera eramateko jarraibideak errespetatzea. (hezkidetza).
-Materiala ekartzea.
-Etxerako lanak egitea.
-Beste ikasleak errespetuz tratatu eta ez zirikatu. Besteen lan egiteko gogoak errespetatu.

B) Azterketa:

Ebaluaketa gainditzeko, gutxienez frogaren %50-a gainditu behar da (Horrela ez denean, kasuan kasu, posible izango da jarrera egokia denean eta interpretazio atala egokia izan denean, irakasleak proposaturiko lan baten bitartez atal hau gainditzea).

C) Lan baten aurkezpena:

Garaiz entregatu. Egokitua. Adierazmen maila ebaluatuko da. Txukuntasuna eta zuzentasuna baloratuko da.

Eguneroko lana eta jarrera: batz besteko notaren %40

Klasean positiboki parte hartu. Isilik eta errespetuz irakaslearen eta beste ikasleen esku-hartzeak entzun. Astero bidaltzen diren etxeko-lanak egin. Materiala ekarri.

Ebaluaketa gainditzeko, jarreran, gutxienez, “nahiko” izan behar da. Klasean errespetu faltako jarrera izanez gero, ez da ikasgaia gaindituko.

Asteroko klasean emandako behaketa izango da ebaluazio-tresna. Aintzat hartuko dira jaso diren kanporaketak, parteak eta negatiboak. Etxeko-lanen aurkezpena baita ere.

Azterketa: batz besteko notaren %30

Ebaluaketa gainditzeko, gutxienez frogaren %50-a gainditu behar da. Teoria eta praktika (entzunnaldia).

Lan baten aurkezpena: batz besteko notaren %30

Lana aurkeztu. Gaiari zuzen egokitua izan. Aurkezpen txukuna eta garbia. Ortografia eta gramatika ona eta zuzena asko baloratuko da. Eduki interesgarria izan. Garaiz entregatu.

| | |
|--|--|
| | |
| <p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p> | |
| <p>Ikasleen ikaste prozesuaren arabera behar diren egokitzapenak egingo dira, gutxienezko helburuak lortzeko.</p> | |

OHARRAK / OBSERVACIONES

| |
|--|
| <p>Ebaluazioen gaitztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Froga espezifikoa "ez gaitztea" denean, utzitako atala bakarrik berreskuratu beharko da (froga teorikoa edo lana). -Eguneroko lana eta jarrera "ez gaitztea" denean, hurrengo ebaluaketan "gaitztea" denean eta horretaz gain, irakasleak proposaturiko lanak era egoki batean aurkezten direnean berreskuratu ahal izango da. Aurreko lerroetan adierazi den moduan, jarrera eta eguneroko lana oso inportantea dira musikako ikasgaia gaitzteko. -EKAINEAN, ez ohiko azterketak badaude, ikasleek aukera izango dute irakasgaia gaitzteko. Kurtso osoa gaitztea beharko du, eta atal hauek izango ditu: -Froga teorikoa, eta - froga praktikoa. |
|--|

EKINTZA OSAGARRIAK 2022-2023

2022ko abenduan: Barroko musikari buruzko kontzertu didaktikoa (oraindik zehazteko eta konfirmatzeko dago)

2023ko maiatzean: ABAOra opera bat entzutera (oraindik zehazteko eta konfirmatzeko dago)